

# BARRREN

ASTEKARIA

EL GOBIERNO ARKOKO ASTEKARIA • 2002ko martxoaren 1a/X. urtea/395. zkia

Juan Mari Larrañaga:

“Ura topatzeko dohain berezia  
nakala konturatu nintzan”



# GREMIOEN GIDA

Gremioen gida honetan azaldu nahi baduzu, deitu ☎ 943 74 37 04

## AROSZTEGIAK

**BIENA**  
Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 16  
z\* 943 74 31 16

**GARCIA**  
Aluminioa eta PVCa  
P. Muguruza, 30  
u\* 943 74 32 38

**LODOSO**  
Leihoak  
Ermuaranbide, 16  
z' 943 74 34 90

**SORALUZE**  
Leihoak-Armairu enpotra-  
tuak  
Santa Ana, 8  
✓k 943 74 36 34

**ULAZIA**  
Aroztegia eta enbalajeak  
Santa Klara, 10  
11 943 74 05 47

**ZABALA**  
Etxeko erreformak-enbalajeak  
Deba kalea, 16  
22 943 74 03 96

110 MIUL-51

**GLAS CONTROL S.L.**  
Inpermeabilizazioak  
Olaso 27, 47. pabiloia  
z° 943 74 30 94

**METO**  
1©\_AEVUM51

**ETXEKIT**  
Antonio Arrillaga, zig  
1r 943 74 43 47

## ITURGINTZA

**ANGEL**  
Santa Ana, 5  
w 943 74 17 61  
tv 689 04 92 06

**ONGI**  
Urasandi, 8  
"a' 943 74 10 82

**PAGOAGA**  
San Antolin, 13  
72 943 74 02 79

**TELLABIDE**  
Azpilgoeta, 19 MENDARO  
11 943 75 50 62  
rt 607 75 50 62

**ZALDUA**  
Urasandi, 26  
943 74 05 30

**ZUBIZARRETA**  
Ubitarte, 5  
z' 943 74 07 89  
wr 608 14 30 40

## NTURAK

**IPINTZA**  
Foruen enparantza, 4  
1x 943 74 04 40  
607 74 04 40

**BIOK DEKORAZIOA**  
Santa Klara, 11 behea  
w 943 74 15 52  
17 606 43 11 19-20

917] PWJMV, J©.LEIMI

**JESUS Ma GABILONDO**  
Ubitarte, 4-5 esk.  
tr 670 41 20 73

## ELEKTRIZITATEA

**ARAMAR**  
Morkaiko, 1  
vi 943 74 12, 80

**AZPELET**  
San Frantzisko, 51  
7 943 74 12 38

**BETI ARGI**  
Errosario, 6  
tr 943 74 16 44

**JOSEBA**  
Pedro Muguruza, 29  
T1 943 74 09 02  
s" 659 93 49 6

**URZELAI**  
Santa Ana, 12-14,  
n• 943 74 13 76

**ANTONIO MARKEZ**  
Urasandi, 24  
12 943 74 34 18

**ASKETA**  
Osio, 7 DEBA  
z' 629 34 43 89

**JOSE LUIS MENDEZ**  
Urasandi, 24  
943 74 29 87  
Tr 679 19 77 47

M121 IME21!

**IRANE 2000.:**  
Olaso, 17  
17 943 74 30 95




**Alkohola erraz eta merke**

Gazteria guztia botellOn delakoarekin erlazionatzen dute, denak zaku berean sartuz. Gazteria, talde heterogeneoa da erabat, eta ezin da orokortu. Asko dira bai, kale eta parkeetan alkohola edaten dutenak, baina ezin da aho batez esan, gazte guztiak botelh5n delakoaren ondorioz alkoholizatuta daudenik. Honekin batera, kasu konkretuak orokortzeko joera hartu dute, eta badirudi orain, gazte guztiak edaten dutenean hiltzaile bihurtzen direla. Arrisku handia dago, baina askotan kotxean zoroaren pare joaten direnak, ez datoz litroak edatetik. Litroak kalean edateko ohitura aspalditik dator, eta ez da erraz amaituko. Gazte jendeak arazo ugari ditu tabernetako salneurrirei aurre egiteko, beraz, alkohola denen artean erosi eta parkean edatea erabakitzen dute. Diru askoz gutxiago gastatuz, efektu bera lortzen dute. Gainera, lagun artean bildu eta barre eginez, tabernaz-taberna baino hobeto igaro dute arratsaldea. Honen guztiaren ondorioa latza izaten da. Zarataren ondorioz bizilagunek ezin izaten dute lorik egin, eta igande goizetan bazter guztiak zikinkeriaz beterik esnatzen dira. Kalea bizirik dagoenaren seinalea da, eta juergan dabilenak, gaztea nahiz zaharra izan, zarata aterako du. Jende askori ahaztu egiten zaio beraiek ere gazte izan direla. Gazteriaren bigarren etxea kalea da, eta askotan, etxean baino denbora gehiago ematen dute bertan. Irtenbidea? Ez dakit, baina kaleak zikin eta pixez beteta egotea ez dut uste gazteen arazoa denik.

**aspalditik daton eta ez da erraz amaituko"**

Ainhoa Andonegi



**ZapalkunUaz**

Zapaldu egoera onartzen diogu munduan bizi diren herri eta biztanle askori. Zapalduak iruditzen zaizkigu palestinarrak, beraien lurretatik bota eta, bertan, israeldarrak jarri direlako nagusi. Zapalduak sahararrak, aintzinatik bizi diren lurrak inoren menpe daudelako, zapalduak kurdoak, ez dutelako beraien herriaren jabe izaterik, berdin txetxeniarrak, Tibetekoak... Baina gu, euskaldunok, zapalduta al gaude? Opresiorik nozitzen al dugu? Zapalkuntza ez dugu denok berdin sentitzen. Areago, ondo bizi dira zenbaitzu zapalkuntza egoera batean, hemen eta Palestinan. Baina datu objetiboei begiratu beharra daukagu iritzi orekatu bat ateratzeko. UNESCOk esan berria du euskara galtzear dagoela Iparraldean, desagertze bidean dagoela munduan beste hizkuntza asko bezala. Demokratikoa omen den Frantziak ez du onartu nahi Hizkuntza Minorizatuena Tratatu. Ez dio onartzen Ipar Euskal Herriari ezta Departamendu bat izatea ere. Nafarroan PPen aliatua den UPN, euskara eta euskal kulturaren aurkako gurutzada etengabe baten murgilduta dago: orain, testu liburuak; gero, trafiko seinaleak; hurrengoan, euskal eskolak administrazioan ukatzea... Euskara eta euskal kulturaren erasoak etengabeak dira Madrildik, Unibertsitate mailan, Ikastola eta Euskal Eskolen aurka, UEMaren aurka... Genozidioa burutzen ari dira Espainia eta Frantzia Euskal Herriaren aurka. Arrazoi politiko, etniko edo erlijiosoengatik giza talde bat sistematikoki suntsitzeari deitzen zaio genozidioa. Botere politiko, ekonomiko eta militarrek eta beraien politika babesteko paktuak egiten dituztenak dira arduradunak. Errealitate honen aurrean, beste aldera begiratzea badago, komeni ez delako edo ezjakintasunez, baina gaurko egoera larriak gauzak bere tokian jartzera behartzen gaitu, irtenbide bat biatu nahi badugu, batik bat.

**"Genozidioa burutzen ari dira Espainia eta Frantzia Euskal Herriaren aurka"**

Pello Mendizabal

Kexak .....	5
InOtZ MOtZ .....	8
gehigarria .....	13
kiROlAk .....	21
aGenda .....	

Cf)

1)

O

N\*

C)\*



## XIBEROA NEGARREZ DAGO

Bai, Kultur Etxean izan berri den aurkezpen batean entzun genuenez, Xiberoa negarrez dago. Eta han esandakoak egiak badira, badu bai, negar egiteko motiborik. Ez gara hemen denak azaltzen hasiko, baina pare bat kontu aittatu nahi ditugu, denok ere hango egoeraz jabetu gaitezen. Ba al zenekiten Xiberoa osoan 13.000 lagun bakarrik bizi direla? (1911n, 25.000 lagun ziren) Elgoibarren 10.000 lagun bizi garela kontutan hartzen badugu, ez da jende traba handirik izango Xiberoako kale eta bazterretan. Eta azken 50 urteetan, 3 lanpostutatik 2 galdu egin direla? Eta xiberutarren % 82, 65 urtetik gorakoa dela? Ez da, ez, katurako panorama. Benito Lertxundik Xiberoari kantatzen zionean, orain baino traza hobea hartuko zion, seguruenik.

Eta beraiek ere konturatu dira, martxa honetan, Euskal Herriko probintzia berdeak jai daukala. Eta arazoari soluzioren bat topatu nahian, "Xiberoa Garatzen" egitasmoa jarri dute martxan. Baina xiberotarrak ez dira tontoak, eta badakite bakarrik ezin dutela ezer egin. Gainontzeko euskaldunei ea lagunduko diegun eskatu digute, eta herri honetan askotan egin den moduan, auzolanean atera nahi dute aurrera Xiberoa.

Helburua 1.000.000 euro biltzea da (166.366.000 pezeta). Diru bonekin 600 lanpostu sortu nahi dituzte jendea Xiberoan gera dadin lanean. Izan ere, lanposturik ez badago, jendeak ospa egingo du, eta jendeak alde egiten badu, "Agur Xiberoa" kantua modan jarri beharko dugu berriz ere.

Eta hau dena zertara dator? "Xiberoa Garatzen" egitasmoari laguntzeko bi lantalde osatu nahi ditugu Elgoibarren: bata, Elgoibarri dagozkion 1.600.000 ptak. biltzeko, eta, bestea, Xiberoako eta Elgoibarko kultur mugimenduak elkartzeko antolatu nahi dugun programa prestatzeko. Bueno, Xiberoako arazoak kezkatzen bazaitu, eta laguntzeko prest bazaude, azaldu martxoaren 11n (aste lehena) Kultur Etxera. 19:30etan elkartuko gara.

**Imanol Larrañaga**  
15.370.726

(Elgoibarko Xiberoa Garatzen taldearen izenean)

## Urruzunoren begi ezkutua

## Erakusleihoak



Merkealdiak, beharpenak, azken produktuak, kolore erakargarrienak... eskaparateen amarru guztiak gutxi dira bezeroen arreta erakartzeko.

Karakate, Irukurutza, Upai Goikoa eta Goenaga baserriak marra imaginario batekin lotuz sortzen den laukiluzea berdin, erakusleio bat da funtsean. Tendentzia berriak aise aurreikusten, tonalitateak tranpa gabe azaltzen. Neguaren goibela edo udaberriaren oparoa. Eta dena estaltzen duen lanbro laino hori tarteka, dendariak erakusleioa aldatzen dueneko erakusezin berberaz.

**Mikel Artola**

ASTEKARIA

# BaRRen

Nalarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAF1  
o 943 74 41 12  
Publizitatea:  
o 94-3 74 37 04  
Faxa: 943 74 37 04

[barrenetopagunea.com](http://barrenetopagunea.com)  
Helbide informatikoa:  
wordopagunea.comfbarren  
Aaerrikunellin  
Elgoibarko izarra

litehurrutaA Elgorbarko Udala ZUEENDARA Eli Alperu  
KAZETARIAK trati Aglrreazaldegt Asier Orbea PUELIZITATEA  
Amaia Erkizia PAAKEDIZAZALEA Iker Diego ADMINISTRAZIOA  
Amaia Radriger GERENIZA Jan Peh U rig uen  
KOLABORATZALEAK Ainhoa Lodoso, Nestor Fuenle, Peto  
kleadizabal, Juan M. Elestendo, ArberioAnsualegt  
Edurne Bilbao, Gotzon Areeta, Lorea Perez de Albeniz,  
Jekin Maretnez, Montse Arregi, Juanita Gareshta,  
Ainhoa Andonegi, Kokee K.E. eta Urmuno L.T.  
AEALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzen Garalaren liburutik  
/NPPLATEGIA Gedu Koop. E. TIRADA 4.025 ale LEGE  
GORDALLUA SS.1.018192 ISSN 1139-1855

ELGIMARKO JZARRi

Elgorbarko Uclatak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
eta Foru Aldundiak diruz lagundurako ardizkaria.



kutxa  
nrlesker

1DANOBAT  
LO111.3 HEAPALAIJEHEN

41. G O I I I  
GRUPO BAHIDAT

LITARTA



tAID1121




**IhDuela gutxi, Bernardo Ezenarro kale ondoko parkean,** tuberiak sartzeko obrak egin zituzten. Kale horretako emakume bat etorri zaigu BARREnera, obren ondoren, dena petatxuz beteta laga zutela esatera. Honako galdera luzatu digu: Horrela lagatzeko asmoa al du Udalak?

Udalera jo dugu eta hona hemen erantzun digutena: "Ez dago horrela lagatzeko asmorik. Konponduko dute baina oraindik ez dakigu konponketa hori noiz egin ahal izango den".

511E1111

- **Arregitorre 14an "pintadak"** egin zituzten duela gutxi. Udalak kontratatutako enpresa bat arduratzen da idatzi horiek paretetatik kentzeaz. Gizonezko batek deitu digu margotutako zati hori gaizki garbitu dutela-eta kexatzeko: "**Gaizki emandako lau pintura eskukada bota dizkiote eta dagoen bezala utzi dute.** Ez zait begitantzen hori herria garbitzea denik", esan digu bizilagun honek.

- Herriko neska batek asteburuetan **Ertzantzak egin dituen "redadak"** egiteko "bazela garaia!" esan digu. Hala ere, gehiagotan azaldu beharko lirakeela dio. Bestalde, honakoa aipatu nahi du: "Egoera honek fabore kaskarra egiten dio Elgoibarren irudiari. Kontuan hartu, gainera, iskanbilak egon ohi diren leku horietan herritar gutxi egoten dela. Ia denak kanpotarrak dira. Gutxi dira egoera onekin probetxua ateratzen dutenak eta asko kaltetuak".



# Ura bilalzeIrt

Juan Mari Larrañaga (57 urte) Mendaroko Idiazabalbco baserrian bizi da. Kobrezko bi makilatxo erabiliz, furpean 60 metro baino sakonago dauden ur poltsak eta ur korronteak non dauden bilatzeko gai da. "Zahort" edo ur bilatzaileak duela 2.000 urte baino gehiagotik existitzen dira. Juan Mari duela 12 urte konturatu zen dohain berezi honen jabe zela. Orduetik aurrera hobby gisa hartu ditu lan hauek eta bere teknikak landuz eta hobetuz joan da. Orain, lur azpian dauden era guztietako metalak, hezurak, zeramikak, etab. topatzeko gai da.



Juan Mari Larrañaga "zaholl"-a edo ur bilatzailea da denbora librean.



Ura bilatzen nahiko ongi moldatzen zela ikusirik, beste gauza edo material batzuk bila zitzakeela bururatu zitzaton Juan Mariri. "Tuberixak bilatzen hasi nintzan eta baitxa zein materialekin einda zaozen ikustea ere. Material desberdinak bilatzeko, material horrekin eindako erramintxak edo amuletuak erabiltzen hasi nintzan. Hezurak bilatzeko adibidez, hezur batekin eindako amuleto bat ein naban, burdina bilatzeko, burdinezko

amuleto bat...". Mendian dabilenean, edo leku ezezagunen batean, uraren presentzia igartzen duela dio. "Inguruan ura dauanian gorputzian zeozer berezixa sentitzen dot eta amuletuak mobitzen hasten dira. Ur potzu bat edo ur korronte bat izan, desberdin markatzen dau". Erremintak katastruan edo argazkixen gainian jarritxa berdin ein dezake lan, "erlajatu, kontzentrau eta terrenuan bertan eongo banintz moduan sentitzen naiz". Bestalde, gaitasun honek pertsonen gaixotasunak bilatzeko balio dezakeela dio. "Gaitza bitatzia ez da zaila, bai, ordia, zein gaitz dan eta zela sendatu asmatzia. Gainera, pertsonekin kontu haundia euki bihar da. Urakin huts einez gero, ez da ezer larririk pasatzen. Pertsonen osasuna jokuan dauanian konplikaua eta delikatua da".

**7**ehatz-mehatz azaltzen ez dakien arren, urak eta ezkutuko gauzek bere bizitzan garrantzi berezia izan — dutela aitortu digu Juan Mari Larrañagak, "Egunen baten Donostiako igarle famoso bat ikustera jun nintzan, Maritxu izenekua. Nere bizitza osua azertau ostian, energia positibua antzematen ziala eta dohain berezi bat nakala esan zian. Ez zian esan zein zan dohain hori".

## NOLA KONTURATU ZEN

Juan Marik Mendaroko udaletxean egiten du lan. Orain dela 12 urte bera zen urarekin zerikusia zuten gaietako arduraduna. "Tuberixa danak zahartuta zauden eta ihes asko zitxuen. Udalak Madrilgo enpresa bat kontratau zaban fugak non zauden bilatzeko. Mutil gazte bat etorri zan aparato oso aurreratuekin. Haren laguntzaile ibili nintzan eta fuga mordua topau genduzen. Gehixao bilau ezin genduan momento batian, mutila autuan sartu eta kobrezko bi makilatxo eskuetan hartuta urten zan. Ilunpian argi bat piztia modukua izan zan neretzat. "Horixe dek neria!" esan nion nere buruari. Horixe zala nere dohaina konturau nintzan eta neu ere ura topatzen hasi nintzan bi barillatxokin". Dena dela, ura bilatzeko dohaina pertsonarengan dagoela esan digu, "ura bilatzeko aparato oso modernuak daude, baina pertsona batek dohain berezi bat baldin badaka aparato danek baino gehixao balixo dau".

**"Igarle batek energia positibua eta dohain berezi bat neuzkala esan zian"**

**J. M. Larrañaga**



# afizio bitxia

## KONTZENTRATU ETA SINESTU

Egiten denean sinesten ez bada, ez dagoela zereginik dio, "Relajau, konzentratu eta sinistu ein bihar da. Dударik baldin badakat, ez dot ezer lortzen. Konzentrazivan laguntzeko kontrol mentala lantzeko ikastaro batzuetara juaten naiz Donostiara. Konzentratzen ikastiaz aparte, arazueri aurre eitzen eta burua erabiltzen laguntzen dia. Azken baten, mentalidadia zabaltzeko balio diate ikastaro hauek eta nere hobbyrako baliagarriak dia". Norbere buruarekiko segurtasuna garrantzitsua dela gaineratu digu, "urdukitasunak alde batera laga eta hau eitzeko gai naiz pentsatzia inportantia da. Lan baterako deitzen diatenian ez dot kaferik edo alkoholik edaten eta ahalik gutxien jaten dot. Beste batzutan inguruan dauden pertsonen energia negatibua euki dezakete eta ez diate nere lana eitzen lagatzen".



## HUTSEGIN DEZAKE

Metodo honek hutsegiteak izan ditzake, "%100eko aziertua ezin leike ezertan lortu. Hau ez da  $2 + 2 = 4$  bezela, ez da zientzia matematiko bat. Hala ere, zenbat eta gebixao ibili gauzak argixao ikusten dia". Pasa den urtea oso ona izan da berarentzat, "lehorte haundixa egon da eta jendiak leku askotik deitxu dia eta nahiko arrakasta euki ditzut ura bilatzerako orduan".

**"Dohain honetaz gaztetan konturau izan baninti, gehixao landuko naban"**

**J. M. Larrañaga**

ez dagoela esan digu. "Mutrikuko baserritar bati ikuilu azpizan ur potzu bat zakala esan nion. Jota nauala eta beste hainbat astakeri esan zizkian. 82 metroko sakoneran 25,000 litro topatu zitxuanian bakarrik geratu zan konforme".

Denbora librean bere beharra dutenei ahal duen neurrian laguntzeko prest dago, "poztasun haundixa ematen dia jendiari laguntziak". Baina hobby bat dela azpimarratu nahi izan digu. Hala ere, dohain honetaz gazte zela konturatu izan balitz, gehiago landuta izango zuela eta agian honetaz bizitzeko aukera izango zuela aitortu digu.

## DENEK EZ DUTE SINESTEN

Berak egiten duena askok ez dutela sinisten esan digu. "Askok esaten diate jota nauala. Noski baietz, erantzuten diet nik, bestela ezingo nuke holako gauzarik ein". Pertsona sineskorrak sinestun bihurtzeko frogatzea beste erremediorik



ler da  
"zahorri<sup>n</sup> bat?"

Ezkutuan dagoena bilatzeko gaitasuna edo dohaina duen pertsonari deitzen zaio "zahorri". Penduloak edo makilatxoak (hagatxoak) erabiliz, lurpeko iturburuak, batez ere, bilatzeko gaitasuna izaten dute. "Zahorri"-ak duela 2.000 urte baino gehiagotik existitzen dira. Aintzina, herrietako aztiak eta sorginak izaten ziren eta bizilagunek ez zituzten begi onez ikusten azti hauen ura bilatzeko ezkutuko gaitasunak.

Jakina den moduan, animaliek ere ura bilatzeko zentzu berezi bat dute, desertuko gameluek esaterako. Gizakiok ere animaliak garenez, ez da aldebera gure eboluzioaren uneren batean gaitasun horren beharra galdu genuela pentsatzea. Juan Marien iritziz, "persona danok dakagu seigarren zentzu edo gaitasun hori, nahiz eta danok ez jakin zela bideratu edo erabili".



## Misqui Elkartasun taldeko Gema Agirregornezkorta Cuscora joan da herrian hildutako dirulaijuntta eramatera

Bildutako 19.500 euroekin hainbat jangela eta negutegi egiteko asmoa dute

**A**tzo, otsailaren 28an, abiatu zen Misqui Elkartasun Taldeko Gema Agirregomezkorta Peruko hirira eta bertan hiru hilabete pasako ditu behartsueri laguntzen. Guztira, 19.500 euro inguru batu dituzte herrian egindako ekintzetatik eta jendeak borronteaz eman duen laguntzetatik. Dirua jaso eta Cuscon, besteak, beste honako gauza hauek egiteko asmoa duela esan digu Gema: "Santa Rosa auzoko jangelara egunero 500 ume joaten dira eta lekua txiki geratu zaie. Beraz, Alemaniatik jasotako diruarekin lokala erosi dute eta orain, hemengo diruarekin jangela eta sukaldea prestatuko ditugu". Bestalde, 5.200 metrotara dagoen Sipascancha Alta



Atzo atera zen Elgoibartik eta hiru hilabete egingo ditu Gema Cuscon

komunitatean negutegia egin nahi dute eta baita Quiquijanan ere. Gainontzeko dirua kaleko lanerako erabiliko dutela azaldu digu

Gema: "Ume batzuk gaixo daudenean klinikara joateko dirurik ez dute izaten eta haiei laguntzen diegu. Esaterako, hara joan eta berehala, Elgoibarko neska batek apadrinatutako **mutiko bat** operatuko dute eztairitik gure laguntzaz. Haur batzuri eskolako matrikula ere ordaintzen diegu".

Eskerrak

Misqui taldeko guztien izenean laguntza eman duten guztiak eskertu nahi izan zituen Gema Cuscora abiatu aurretik. Bertan ahalik eta helburu gehienak betetzen saiatuko dira, eta bueltan proiektuarekin jarraitzeko asmoa du, nahiz eta oraindik ez dakiten zein ekintza egingo dituzten.

## Blatit sexologia jarri da martxan, martxoaren 4an

Datorren astelehenean, martxoaren 4an, sexologia zerbitzua jarriko du martxan Eli Moreno sexologoak. Zerbitzua, astelehenero arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara Gazte Informazio Guneak Kultur Etxean duen bulegoan izango da. Sexualitatearen inguruko informazioa eta aholkularitza emango du Elik. Esaterako, HIESAREN: probak non egin daitezkeen, haurdunaldia: prebenitzeko moduak... Edozeinek dituzte ateak zabalik, eta zalantzak argitzeko edo interesa azaltzeko datorren astelehenetik aurrera izango duzue aukera bertara joanda edo telefonoz deituta 943 74 14 61 zenbakira. Helbide elektronikoa ere erabili daiteke kontakturako: [biluzikzerbitzua@yahoo.com](mailto:biluzikzerbitzua@yahoo.com).

## "In-vertion" talde elgoibartarrak estreinako kontzertua eskaini zuen IMHko Egunean

Joan den ostiralean, hilaren 22an, IMH Eguna ospatu zuten Makina Erremintaren Institutuan. Goizez kirola, sukaldaritza eta mahai jokoak izan ziren protagonista.



Arratsaldean, berriz, Elgoibarko 6 mutil gaztek rock kontzertua eskaini zuten IMHko kafetegian. Aitor Azkue, Haritz Arrieta, Aitor Rosario, Jon Zaldúa, Ander Mujika eta Gaizka Etxaniz Su Ta Gar, Metallica eta Nirvana taldeen bertsioak jotzen eta abesten aritu ziren

gitarra eta bateria doinuekin. Kafetegia jendez beteta egon zen eta giro onean pasa zuten eguna ikasle eta irakasleek.



## Ander Gerenabarrenak irabad du Txankakuaren Gabonetako zoiketako sari nagusia

**G**abonetan urtero egin ohi duen eran, Txankakua Merkatari eta Zerbitzu Elkartek zozketa egin du aurten ere. Guztira 1.800 euro banatu ditu erosketa txeketan, 4 irabazleren artean. 900 euroko sari nagusia Ander Gerenabarrenak eskuratu du. Gainontzeko sarituak honako hauek izan dira: Consuelo Mediavilla (450 euro), Virginia Errekalde (300 euro) eta Cristina Lopez (150 euro). Erosketa txekeak Txankakuako dendetan gastatu ahal izango dituzte.



*Ezkerretik eskumara: Ander Gerenabarrena, Dori Lemos (Txankakuaren izenean), Cristina Lopez, Consuelo Mediavilla eta Virginia Errekalde*

## Marixoaren 12an zabalduko da Mendaroko KI gunea

Euskal herritarrek teknologia berrietara hurbiltzea helburu duen "Konekta Zaitzez Herritar" programa jarri du martxan Mendaroko Udalak. Etxekoandreak, erretiratuak eta langabetuak omen dira ezagutza gutxien dutenak. Eusko Jaurlaritza eta EUDEL, elkarlanean, zentro Publikoen sarea sortzen hasi dira hainbat herritan eta "KZ gurtea" zentroak jarri dituzte. Horietako bat Mendaron ipini dute eta martxoaren 12an irekiko dituzte.

EMA LIMEAK-CONTEMPORARY ART-ELGOIBAR

ALAZNE GONZALEZ  
A. I. NARA  
ETXESERRIA  
SONE OSORO  
AINARA GARCIA

ELGOIBAKO KULTUR ETXEA  
MARTXOAK 7-17

**ERAKUSKETA**

zt inaugurazioa: 19 H. - 21H.

NTIZILATZAILEAK: HA AKUME TALDEA

intoNocr TAIEFERNAGMUIZIJAMENDIARAZgrADEK

**HOIEI**

**MATRIKULA LIBREA 2001/02**  
ZALDIBAR, MALLABIA,  
ERMUA ETA DEBA  
BAILARAN bizi diren  
ikasleak

**EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA**

- MATRIKULA-SOBREAK JASO: Martxoaren letik 15era.
- TOKIA: H.E.O.-eko Idazkaritzan
- MATRIKULA BURUTU: Sobrean adierazitako egun eta orduan.

N.A.N.a BEHARREZKOA DA

Argibide gehiago 943 20 06 18 telefono zenbakian edo Eskolako webgunean:  
[www.euskalnet.nedeoieibar](http://www.euskalnet.nedeoieibar).

**OIERKI** IGOGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

943 82 01 09 Faxa: 943 82 01 82

Indalezio Ojanguren 2, behea • 20600 EIBAR

**Drogen aurkako bi uredada" egin dira azkenaldian Elgoibarren**

## ERTZANTZAREN "REDADEK" ALDATUKO AL DUTE ASTEBURUETAKO "MOBIDA"?



### SERGIO CONOE

34 urte, arotza

Ez dut uste. Gazteak, beraien pentsaera eta idea finkoak dituzten bitartean, inork ez ditu aldatuko eta "mobidak" bere horretan jarraituko du.

### IONE GARCIA

42 urte, etxekoandrea

Aldatu, ez dakitx, baina horretatik zeozer ona aterako da. Hortan dabizenek esaten dabe euren gorputzak nahi dabena eitzen dabela, baina beste batzuri saltzen ari dian momentutik euren aurka dihardute.



### JONE URANGA

47 urte, dendaria

Ez nao hain ziur aldatuko danik. Redadekin bakarrik ezin leike askorik konsegidu, batzuk bakarrik harrapauko ditxue. Beste modu batera konpondu biharko liake gauzak.

### JOSE ANTONIO MORCILLO

42 urte, montadorea

Ez. Arazoa konpontzeko metodorik onena drogak legalizatzea litzateke. Gainera, horrela kalitate hobeko droga izango genuke.



### CARMEN MORALES

25 urte, ikaslea

Ez, ertzainek etortzeari uzten diotenean gauzak lehengora bueltatuko dira. Lokalen jabeek debekatu beharko lukete taberna barruan drogak saltzea.

### EMILIO SANTOS

59 urte, enpresaria

Baietz uste dut. Ni hemengoa naiz, baina Kolonbian bizi naiz, eta itzuli naizenean ez dut lehen ezagutzen nuena aurkitu. Larunbatetakoarekin fama txarra hartu du herriak.



**Cordon, Vilarchao, c.b.**  
**IDEKCDRAZIC, A**

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK,  
SINTASOIA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK,  
GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke , 7 behea. Tel: 943 74 28 74-74 05 70

atr DEBA

**11104, GARAIA**

1NMUEBLE AGENTZIA

ELGOIBAR ERDIGUNEAN

Estudioa salgai  
Eraikuntza berria  
logela bat - sukaldea  
egongela eta bainua  
igogailua

**BEREHALA SARTZEKO**

Errosario, 34-1ezk • Tel. 943 744 283 • Faxes: 943 744 253



# nolo ALDATU diren gauzak!

**1969.** urtean ateratakoa da erretratuak. Herriko Merkatu Plaza zaharra ikus dezakezue bertan bai atzealdetik eta baita aurretik ikusita ere. Erreka aldetik begiraturaz gero, herriko eraikuntza ezagunak ikus daitezke. Batzuk, gaur egun desagertuak daude. Merkatu Plaza 1925. urtean egin eta 1971. urtean bota zuten. Martxa polita izan zuen merkatuak eta saltzaile ugari etortzen zen bertara. Herriko antzerkiak, kontzertuak, euskal dantzak, boxeoa, erromeriak, e.a. ere bertan egiten ziren. Euria egiten zuenean ere, Musika Bandak Merkatu Plazan eskaintzen zituen kontzertuak.



**2002.** urtean Merkatu Plaza ez da lekuz aldatu, baina eraikuntza guztiz desberdina da. Duela urte asko bezala, gaur egun ere, baserritarrek beraien produktuak saltzen ipintzen dituzte ostegunero eta beheko pisuan berriz, astean zehar erosketak egiteko egoki prestatutako dendak daude.

# Batii 15

E<sup>1</sup>9°. 1!), rereer!

# 8

GORDA1111

1111X111111.

11111B11111111

011111.

Bankoa Elgoibar. San Francisco . Tlf. 943 74 40 72





2007ko martxoaren 14. urtea / 395. zenbakia

# BARRREN

ASTEKARIA

## Elkarritzaketa



[Redacted text]

“GERNIKAKO BONBARDEUA IZAN ZANIAN, NEGURITXIK ZERU DANA GORRI GORRI IKUSI GENDUAN.

7 r4d<sup>i</sup> 111114 i<sub>t</sub> ^# \$141414F DANA LAUTUTA LAGA EBEIN<sup>5</sup>

4 '44-1mtil.

Felisa Bergaretxe



# Felisa Bergaretxe

## “Euskadi libre eta garb

*FELISA BERGARETXE, ERMUARRA DA JAIOTZEZ, BAINA URTE ASKOAN ELGOIBARREN BIZI DA. FELISIN MODUAN EZAGUTZEN DA HERRIAN. GERRA GARAIAN UNE LARRIAK BIZITAKOA, ETA LANGILE SUTSUA. GAUR EGUN ERE BERA ARDURATZEN DA ETWO LANETAZ. DUEN DENBORA LIBRE APURRA ATZAPARRAK ASTINDUZ, PIANOA JOTZEKO APROBETXATZEN DU. ARGAZKIAK PIANO AURREAN ATERA DIZKIOGUNEAN BERE BIZKAITAR IZATEA AGERIAN UTZI DIGU, NAHIGABE-EDO ATHLETIC-EN KANTUA JOTZEN HASI DA. EMAKUME LANGILEA ETA ALAIA, IRRIBAR ETA OROITZAPEN TRISTE ARTEAN BERE BIZITZAREN BERRI EMAN DIGU FELISINEK.*



Nola gogoratzen duzu ume garaia?

Orduan ez geunkan ezebez oingo aldian, baina tanbolina domekero eoten zan eta baitxa erromerixia ere eta jo ta ke dantzan ibiltzen ginan. Piska bat hazi ginanian, elegante jantzitxa saloietara juaten ginan dantza eitxera. Jaixetan frontoian jazzband-a eoten zan eta pieza politxak jotzen eben. Etxian beste aldian pagopian kohinpixuak ipini eta han ibiltzen ginan, baitxa diabolua-kin jolasian be. Baina lana be eitxen genduan. Amak erakutsi oskun hautsak kentzen eta Ayuntamientoko saloia makina bat bider eskobautakua naiz ni 12 urtekin.

Antzerkia ere egin zenuen gaztetan.

18 urtekin negar eta barre eitxeko obra bateko protagonista izan nitzan. "Damua garaiz" zekan izena eta gure amak-eta ezautzen eben lehendik. Ermuko Ayuntamiantuan ein genduan eta "Erreguetan ari nintzala" bertsuak kantau genduzen. Andrak negarrez eon zian gu kantuan gaozela.

Gaztetan gerra bizitakoa ere bazara.

Gerratia etorri zanian, frentia euan. Arraten nazionalak euazen eta beste aldetik, Urkon, guriak. Gainera, Azkaratetik nazionalak baetozela esaten etorri zan Elgoibarrera ezkondata euan nere ahiztia, aitzari zer ein bihar genduan galdetzeraz. Edadeko tia bat Negurin eon zan aña lanian, eta hara juatia nahi genduan esan eskuen, eta familixako danak jua zian hara.

Zu, ordea, Ermuan gelditu zinen, ezta?

Aitxa munizipala, alondigerua eta "recaudador de arbitrios" zan eta bera bakarrik ez lagatziarren Ermuan geratu nintzan. Ayuntamientoko gauza danak kamioi baten sartu eta beste toki batera eruan zitxuan aitzak. Ni, berriz, alkatiakin eta ayuntamientoko beste gizon batekin Bilbora jun nintzan kostatik. Orduantxe izan zan Gernikako bonbarduea eta Neguritxik zeru dana gorri-gorri ikusi genduan. Dana laututa laga eben. Koinatua ta danak mendixan ebizen eta goizaldian ke artetik beltz-beltz einda etorri zian.

Gehiago ere pasa zenituen. Aita kartzelaratu zuten garaia nola gogoratzen duzu?

Ez eban ezer ein baina... hiru urte ein zitxuan barruan. Ni Bilbon geratu nintzan aitxa zaintzen etxe baten. Egunian pezeta bat pagatzen naban ohia, "eon derecho a eocina". Hango etxekoandriak fabrika batetik kartoizko kopinen moldiak ekartzen zitxuan guk etxian eitxeko. Hola pezetia etaratzen neban eta aitzari egunero eruaten nion kartzelara jatekua.



# ikustiarren, neure bizixa emango neuke"



Aita ez ezik mutil laguna ere izan zen kartzelan, ezta?

Bai, sei urtian eon zan kartzelan eta hiru desterrata. "Sangre vasca" deitzen zioen Elgoibarren. Itxuria Burgosen soldau eon zanian euskaria besterik ez zeban ibiltzen eta hortik etorri jakon izena. Egunero bazkal ostian kafia hartzera juten zanian Guardia Zibilekin eitxen eban musian, orduan ez euan kontrarixorik inobez.

## "AITXAK HIRU URTE EIN ZITXUAN KARTZELAN ETA NI BILBON GERATU NINTZAN BERA ZAIINTIEN. ETXE BATEN EGUNIAN PEZETA BAT PAGATZEN NABAN ONIA"

Elgoibarrera noiz etorri zinen?

Aitxa Ondarretara eruan eben eta guk hobeto zekaun Elgoibartik hara juateko. Ahiztian etxera etorri ginan nik 23 bat urte nakazela. Hemen taberna bat hartu genduan eta kozinera lanetan ibili nintzan.

Izan ere, sukaldari ona zarela entzun dugu.

Bai, umetatik euki dot afiziñua. 12 urte nakazean banakixan kanuti-luak, madalenak, bonbak... eitxen. Gero Bilbon egon nintzan kozinera, Montalboko kondian anai-arreben etxian, 19 urte nakazela. Donostiako Felix Ibarguren kozinero famosuan rezeta asko nakazen. Menu bariak

eta alkarrekin konbinatzen zebenak preparatzen nitxuan. Armosatzeko eta meriendarako bolluak preparatzen nitxuan. Urtian bi egunetan solomillua preparau bihar izaten neban beste konde eta markes batzuk etortzen ziazenerako.

Beste lanbide batzuk ere probatu zenituen. Non egin zenuen lan?

Sigman hasi nitzan lanian eta josteko makinak probatzen lehenenguetarikua izan nintzan. Orduan San Bartolome kalia tabernia euki genduan. Gero ganora haundixa nakala eta koinatuak bere dendara eruan ninduan lanera, eta jende asko etortzen zan bai dendara eta baitxa tabernara ere.

Politika arloan lan egindakoa ere bazara. Nola ikusten duzu gaur egungo egoera?

Guk gazte-gaztetatik hau kantatzen genduan: "Euskaldun guztiok bat ein ezker ez dago bildurrik, ondo bizi izateko Espainia gaberik. Euskaldun guztiok bat ein ezker ez dago bildurrik, Madrilen sartzeko eusko ikuninarekin". Oin ere kantuak esaten dabana defenditzen segitzen dot nik. Baina egoeria ez da batere ona. Piskanaka danok batera zeozer konsegidu bihar dogu. Txarretik ez dator-eta gauza onik.

Alderdi Egunera ere urtero joaten zara, ezta?

Bai, badia juatiari lagatzen diuenak, baina ni urtero juten naiz, geuk eitxen ez badou zeinek ingo dosku ba! Zeozer konsegidu bada lanan

puruan izan da, makina bat sakrifizio eindakuak gara gu. Partiduan, botazivak ailegatzen dianian propaganda partitzen ibiltzen naiz, baina ostantzian ezer askorik ez. Hala ere, Euskadi libre eta garbi ikustiarren neure bizixa emango neuke.

Bizitza lana bakarrik ez da izan zuretzat. Pianoa ere jotzen duzu denbora librean, ezta?

Behin dendia laga nebanian hasi nitzan pianua jotzen ikasten Donostian. Trenian juten nitzan astian behin. Gero lagata eon nitzan eta berriz Elgoibarko Musika Eskolan hasi nitzan. Oin astian behin juten naiz eta gero nere kasa jotzen dot etxian. Tanguak, pasodobliak...joten ditxut, baina geuriak, euskerazko kantuak, gehixao gustatzen jataz.

## "ASTIAN BEHIN JUTEN NAIZ PIANUA JOTZERA. TANGUAK, PASODOBLIAK...JOTEN DITHUT, BAINA EUSKERAZKO KANTUAK GEHIXAO GUSTATZEN JATAZ"

Beste zein zaietasun daukazu?

Puntua, bordauak, gantxilua... eitxia gustatzen jata. Egon izan naiz inoiz goizaldera arte bordatzen. Ein ez doten gauza bat pintatzia izan da, eta asko gustatzen jata. Baserrixak, lorak... gauza politxak pintauko nitxuzke.

# atzera begira

## pausoz pauso

- Orain dela 86 urte jaio zen Ermuan eta bertan eman zuen ume eta gazte denbora.

- 18 urte zituela Montalboko kondetaren anaia-arreben etxean egon zen sukaldari.

- Gerra garaian, familiak Negurira alde egin arren, aitarekin geratu zen Felisa Ermuan. Hau atxilotu zutenean Bilbon egon zen bera zaintzen, eta garai hartan kartoizko kopinak egiten ateratzen zuen eguneroko ogia.

- Ondoren Elgoibarrera etorri eta taberna ireki zuten. Baina emakume langilea izanik, tabernan ez ezik Sigman ere aritu zen lanean josteko makinak probatzen

- Tabernako lanetik koinatuaren dendarara pasa zen eta bezero asko izan zituen bertan.



- 34 urterekin ezkondu zen eta bi seme-alaba izan zituen. Gazte alar-gundu zen, ordea, Felisa 38 urte zituela apendizitisak jota hil zen bere senarra.

- 65 urtera arte dendan egin zuen lan eta oraindik ere langile sutsua izaten jarraitzen du.

- Politika arloan ere egin ditu bere lantxoak eta hauteskunde garaian oraindik noiz edo noiz bere alderdiarentzako (EAJ-PNV) boto eskean eta propaganda bnatzen ibiltzen da.

- Jubilatuta pianoa jotzen ikasi zuen eta gaur egun ere oraindik Musikeskolarra joaten da astero pianoa ikastera.

besteen ahotan



### Marisabel Zabaleta

Nork ezagutuko du bada inork baino hobeto Felisin Bergareixe, bere eixeko edozeinek baino. Felisinen ilobct da Marisabel Zabaleta eta bere ahotik izebari buruzko hitz politikak baino ez ditugu jaso. Lan asko egindakoa omen da Felisin, guk ere frogatu ahal izan dugun bezala, "eta oraindik ere lanean jarraitzen duena", esan digu Marisabefek. "Kementsua eta alaia", bi hitz hauekin definitu du ilobak izeba. Abestea, musika eta dantza oso gogokoak dituela ere jctkin digu. Marisabelen esanetan, "ospakizunetan elkartzen garenean denok jartzen gaitu danizan". Eixerin baino non hobeto Felisinen sukaldari dohainak frogatzeko. Makina bat aldiz bere postre gozoekin gozatutakoa da Marisabel ere. " Sukaldari eta gozogile oso ona da. Bizkoixoak, bonbak, ochook, chuchoak, e.a. prestatzen ditu. Askotan jan izan ditugu berak egindako tarta ederrak". Horrelako emakumearen albora nor ez ingururatu bada, postre gozo eta kantu artean garai bateko konturik ez da faltako Felisinenean.



# Farmazia - okindegia

## EGUNEZ

1	Bidasolo
2	Etxeberria (Santa Ana kalean)
3	Etxeberria (Errosario kafean)
4	Fernandez
5	Yudego
6	Zabaleta

## GAUEZ

Bidasolo
Etxeberria
Etxeberria
Fernandez
Yudego
Zabaleta

## FARMAZIAK

1BAÑEZ, Rekalde, 1 Soraluze.  
Tel. 943 75 1 6 38

FERNANDEZ,  
Herriko enparantza 4, Garagarza.  
Tel: 9/13 75 61 42

ZABALETA, Kalebarren, 9 Soraluze.  
Tel: 943 75 13 84

'eguerdiko 2ak arte

## OKINDEGIA

10 egandea Ibarrenea

# -Ei INTERESEKO TELEFONOAK

## OSASUNA

Larrialdiak .....	112
Anbulatorioa .....	943 03 26 10
Planning-a .....	943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak .....	943 74 03 85
D.Y.A (anbulantzia) .....	943 46 46 22
Gurutze Gorria .....	943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea .....	943 03 28 00
Odol Emaileak .....	943 74 39 36

## GARBAIOAK

Eusko Trenbideak .....	902 54 32 10
PESA (Eibar) .....	902 10 12 10
Taxi geltokia .....	943 74 08 98

## UDALA

Udaletxea .....	943 74 10 50
Euskara Zerbitzua .....	943 74 43 66
Ongizate zerbitzua .....	943 74 10 08
Kultura Zerbitzua .....	943 74 21 58
GI G (Gazte Informazio Guneal) .....	943 74 14 61
Udaltzaingoa .....	943 74 13 94
Udal Kirol Patronatua .....	943 74 44 15
Mendaroko Udala .....	943 75 61 00

## BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra .....	943 74 16 26
Ki roldegia .....	943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa .....	943 74 30 88
Liburutegia .....	943 74 35 25
Musika Eskola .....	943 74 21 45
Mintxeta .....	943 74 43 15
Parrokia .....	943 74 08 42
Postetxea .....	943 74 15 47
Gaztetxea .....	943 74 35 72

## ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza .....	943 74 02 96
Zaharren Biltokia .....	943 74 05 26
Eguneko Zentroa .....	943 74 45 65

## IKASTETXEAK

Haur Eskola .....	943 74 21 41
HH1 (EPA) .....	943 74 08 80
Herri Eskola .....	943 74 08 79
.....	74 41 32
Institutua	
Arreiturre .....	943 74 80 19
Ezenarro (Meka) .....	943 74 80 19
I kastola .....	943 74 44 41
Pilar Ikastetxea .....	943 74 13 31

## KOMUNIKABIDEAK

BARREN .....	943 74 41 12
El Diario Vasco .....	943 74 40 73
El Correo Español .....	943 74 10 82
Zazpiki Irratia .....	943 74 34 74
Egunkaria .....	943 30 02 22
Gara .....	943 31 69 99

## EuskoTren

## EuskoTren AfTOBITSMI

### DONOSTIA-131110

#### Egunero

Dnnoostiaaruw 5.45 06.45... 20.45

Elgoihar 07.02 08.02... 22.02

\*iaiegunetan 7 45ean hasiko dira eta orduu) ogungo dira

### BILBO-DONOSTIA

#### Egunero

06:00 7.00... 20.00

Elgoibar 07.23 08.23... 21.23

jaiegunetan 8.00etan hasik, dira eta orduerd egunge> dira

### MENDARO-ELGOIBAR

#### Egunero

Mendaro 07.50 08.50... 21.50

### ELGOIBALMENDARO

#### Astegunetan

Elgoibar 07.25 08.25 10.25... 21.25

#### Jaiegunetan

Elgofflar 08.25 09.25 10.25... 21.25

## LARUNBAT GAUA

### PES.AUTOBUSAK

#### EIBAR-ONDARROA

Eibar	00.30	02.30	04.30	06.30
Figorbur	00.40	02.40	04.40	06.40
Deba	00.50	02.50	04.50	06.60
Mutriku	00.55	02.55	04.55	06.55
Ondarroa	01.05	03.05	05.05	07.05

#### ONDARROA-HBAR

Ondarroa	23.30	01.30	03.30	05.30
Mutriku	23.40	01.40	03.40	05.40
Deba	23.45	01.45	03.45	05.45
Noibar	23.55	01.55	03.55	05.55
Eibar	00.05	02.05	04.05	06.05

Autobusetako informazioa lortzeko deitu Eibarko infonazio bulegora. Tel. 902 101 210.



# A

ste honetako erretratua **Gregorio Esnaolak** laga digu. 1960koa da argazkia. Laukote honek, Elgoibarren bildu, eta arratsalde pasa Ondarrura joatea erabaki zuten. Ondarrun bazkaldu omen zuten eta baita arratsalde ederra pasa ere. Ez zitzairen ahaztu erretratua ateratzea bertako taberna batean. Tartean, **Patxi Antsola** dago, herrian bere umore onagatik ezaguna. Gauzak horrela,

pozik bueltatu ziren laurak etxera. Hauek dira laukotea osatzen zutenen izenak, ezkerretik eskumara: **Gerbasio Ostolaza "Arrona" (t)**, **Patxi Arostegi "Antxola" (t)**, **Gregorio Esnaola "Muxillo" (t)** eta behean, **Inaxio Alberdi "Azkoiti" (t)**, C.D. Anaitasunako atezaina eta Azkoitia-Elgoiliar-Azkoitia autobusen lerroko gidaria zen azken hau.



## JAIOTAKOAK

## URTARRILik



**Naïke Arriola Rezola.**  
Urtarrilaren 7an. Gotzon  
Arriola eta Montse Rezola.



**Irene Alonso Urrusolo.**  
Urtarrilak 30. Roberto  
Alonso eta Lucia  
Urrusolo.

## OTSAILA



**Unai Fernandez Mateos.**  
Otsailak 1. Ramon  
Fernandez eta Maria Jose  
Mateos.



**Oihane Urain  
Sariugarte.** Otsailak 7.  
Jesus Maria Urain eta  
Maria Mercedes  
Sariugarte.



**Nora Rodriguez  
Bernedo.** Otsailak 22.  
Emesto Rodriguez eta  
Sara Bernedo.

## HILDAKOAK

**Teofilo Gareia Albillo.**  
Otsailak 1. 75 urte.  
**Domingo Ruiz Ortiz.**  
Otsailak 5. 66 urte.  
**Teodoro Landa Mendikute.**  
Otsailak 10. 68 urte.  
**Gensarito Fernandez  
Fernandez.**  
Otsailak 10. 58 urte.  
**Benita Ojanguren Larrañaga.**  
Otsailak 20. 94 urte.


Atal honetan zuen serne-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu **BARREN** astekarira **943 74 41 12** telefonora edo bidali e-postaz [barren@topagunea.com](mailto:barren@topagunea.com) helbide elektronikora.

## ETXEBERRIA

Pidetd.

OSOA eta 24 ORDUKOA

*KUTXAK TRASLADOAK .KOROAK*



NORBANAKOEI  
eta KONPAINIEI  
zuzenduriko  
zerbitzuak.

Donostia eta  
probintziako  
erietxe zentroetan  
ere bai.

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 74 16 56  
(Mobila) 608 77 07 01

# Ikiro ak

ZUHAITZ GURRUTXAGA, REALEHO JOKILABIA

## 1111abete honetan dakagu aurrera edo atzera eitxeko aukeria"

-Min egin al zuen Rayo Vallecanoren aurkako berdinketak? Bai, inportantzia haundixa zakalako eta, batez ere, partidua zela jun zan ikusitxa, penia izan zan. Partidua kontrolauta eta aukera asko izan genitxuan, baina... Eurak 2 bider ailegau eta bi gol sartu zitxusten, gu 10 bider ailegau eta 2 bakarrik sartu genduzen.

-Zer moduz daude Realeko jokalarien animoak? Azken 5 partiduetan, 15 puntutatik 10 atera ostian, animauta ailegau ginan Rayon kontrako partidura. Batez ere, oin dala gutxi, salbaziotik 7 puntura egon ginala kontuan hartuta.

-Iartidu erabakiorrak datoz, ezta? Bai. Osasunan kontra Sadarren jokauko dogu eta gero etxian beste bi partido segidan, hoietako bat Tenerifen kontra. Hilabete honetan dakagu aurrera edo atzera eitxeko aukeria.

-Denboraidi hasierako Realak eta oraingoak bi talde desberdin dirudite. Zergatik aldaketa hau? Igual bai. Hasi ginanian lehenengo 8 partiduetan 2 puntu bakarrik atera genitxuan. Oso gaizki hasi ginan eta irabazteko talde erreza ginan. Beste taldiek ezer ein gabe irabazten ziguten, gu baina hobiak ez ziala jakin arren. Oin taldia gogortu edo zaildu ein da.

-Ausartzen al zara zerk egiten duen huts e-do zein diren Reataren gabeziak esatera? Azken 3 urtietan, tenporada hasiera kaskarrak izan diala akats nagusixak uste dot. Zergatik hasi geran hain gaizki? Horren esplikaziorik ez dakat. Tenporada

hasieretan danok, baita entrenatzailiek ere, talde ona zakagula uste genduan, baina ezin izan ditzugu hasiera kaskarrak gainditxu.

-Maila pertsonalean, zein balorazio egiten duzu aurtengo denboraldiaz? Baloraziva ez da batere positibua. Jokalari guztiok ahal dan gehixen jokatzia nahi izaten dogu eta aurtun oso partidu gutxi jokatu ditzut lehenengo taldiakin. Lanian segidan eta aukeren zain egon biharko naiz, oindiok gaztia naiz eta badakat astixa.

### "Tenerifey Rayo eta Zaragozak galduko dabe maila"

-Lehen taldearekin eta Sanserekin tartekatzen dituzu partiduak. Zer moduz hartu zenuen erabaki hori? Lehen taldian 2 urte ein eta gero, arrarua iruditxu jatan aukera hori hasieran. Atzera pauso bat ematen zaban askontzat, baina neretzako mesedegarrixa zala konturau nintzan. Lehen taldian jokau gabe gora beira egotia baino hobia da. Gainera, partiduek ematen daben ritmua ez galtzeko lagundu dia.

-Sanserekin bi gol sartzeko aukera ere izan duzu, ezta? Bai eta ni izan naiz harrixuta geratu zan lehenengua. Atzelarixak nahiko galduta ibiltzen gera beste aldeko arean.

-Realean hasi zinetik futbolari moduan hoiberu zarela nabaritu al duzu? Lehenengo urtia izan zan gehixen jokatu



nabana, baina oin rokalari konpletuaua naiz. 19 urtekin ixo eta nerbixo hutsa nintzan. Partidu guztiak %200era jokutzen nitxuan. Defendatzeko ona izan leike, baina ez baloia jokatuta ateratzeko. Oin lasaixao jokutzen dot. Kastiakin ez da nahikua, baloia jokatuta eta lasaitxasunez urtetzen ikasi bihar da.

-Realean zaudenetik gogoan duzun une bat? Debutaz aparte, urte haretako azken partiduan Bartzelonan aurka etxian salbau ginan momentua goguan dakat. Hitabete haiek oso gaizki pasau nitxuala akordatzen naiz.

-Ligako aurrelari bat eta atzelari bat? Aurrelari bat Diego Tristan; eta atzelari bat, Valentziako Ayala. Ez da oso altua baina oso bizixa da eta txakur zaharra gainera, argentinarr gehixenak moduan.

-Aurtengo ligan maila galduko duten 3 taldeen izenak? Tenerife, Rayo Vallecano eta Zaragoza.




## Mendiaz eta sagardoaz gozatu zuten Morkaiko Mendizale Elkartearekin Gorbeiaiko trabetesia egin zuten 55 lagunek



**M**orkaiko Mendizale Elkarteak Gorbeiaira antolatu zuen irteeran 55 lagun izan ziren pasa den otsailaren 23an. Ez zen ohiko mendi irteera izan, Zornotzako sagardotegi batean eman baitzioten segida egunari. Autobus osatutako baita zuten Morkaikoren deialdiak eta izan zen leku faltaz joan ezinda geratu zenik ere. Beste batzuk autoz joan ziren Muruaraino (Araba), ibilaldia hasten zen lekuraino, hain zuzen ere. Mendian ibiltzeko egun kaskarra aurkitu zuten Gorbeian. Eurria, elurra eta behelaino itxia gutxi balira, demaseko lokatzari ere aurre egin behar izan ziotela

aipatu digute. Hala eta guztiz ere, denek lortu zuten Gorbeiaiko gurutzeraino iristea eta handik Barazarrera (Bizkaia) jaistea. Agian, sagardotegiko menuaren eta sagardo goxoaren irrikak izan zuen zerikusirik eta ezkutuko indarrak atera zituzten zenbaitzuek. Indarrak berreskuratzeaz gain, giro ona eta umorea izan ziren nagusi bazkalostean. Soinu eta panderoaren laguntzaz, sagardotegiko barrikak erdi hustuta Iaga zituztela aitortu digute. Batzuk, Elgoibarren, ordu txikitari amaitu zuten goizean goiz mendian hasitako eguna.

## Goenaga eta Iriondok 22-5 galdu dute Pilotako Euskal Ligako finala



**H**aritz Iriondo elgoibartarrak eta Altor Goenaga azkoitiarrak osatutako bikoteak ezin izan zuten Euskal Liga Txapelkeko garaikurra eskuratu. Lagunak Pilota Eskolako bikoteak 22 eta 5 galdu zuten Zornotzako Etxeberria eta Iza bikotearen aurka pasa den asteburuan Matienan (Bizkaia) jokatu zen finalean. Txapelketa bikaina burutu ostean, partidurik galdu gabe iritsi ziren finalera, duten maila erakutsi ezinik ibili ziren Goenaga eta Iriondo. Kadete mailan dagoen txapelketarik garrantzitsuenetakoa izanik, urduri atera ziren pilotalekura eta jokuan ezin sartuta ibili ziren.

## EMA1TZAK

### Futbola

Haundi 1 - Mundarro 1 (Pref.)  
Pedrusko 2 - Kilimon 1 (1. erreg.)  
Elgoibar 7 - Almen 0 (Neskak)  
Orioko 0 - Elgoibar "B" I (1. erreg.)  
Idiazabal 2 - Elgoibar 2 (Jub.)  
Anaitasuna 1 - Elgoibar 1 (Kad.)  
Liceo Santo Tomas 1 - Elgoibar (Inf.)

### Eskubaloia

Tecnomeca Elg. 29 - Almen 21 (Kad. mul.)  
Pneumax Elg. 30 - Almen 20 (Juh. mut.)  
Tecnifuelle Elg. 30 - Trapagaran 11 (Senior mut.)  
Kukullaga 18 - Pagoaga Elg. 21 (Kad. nesk.)  
Kukullaga 21 - Unceta Elg. 25 (Juh. nesk.)  
Urdaibai 26 - IMS Elg. 15 (Senior nesk.)  
Arrasate 19 - Gaur Elg. 39 (Jub. mut.)

### Esku pilota

#### EUSKAL HERRIKO LIGA

##### Finala

Etxeberriallza 22 (Lagun Onak) - Goenagailriondo 5 (Lagunak)  
Debarroko Txapelketa  
E. Ulazia/E. Loiola 22 (Lagunak) - Etxaniz/Agirrebeña 19 (Eibar)  
Ansola/Lazarobaster 22 - Etxabe/Madin 20 (Eibar)  
GIPUZKOAKD TXAPELKETA  
Lagunak (1) 18 - thalde 7 (Inf.)  
Lagunak (3) - Añorga 18 (Int.)  
Aurrera Saiaz 18 - Lagunak (2) 13 (Inf.)

### Idarraga Kafeak 5. saria

#### HAUNDIko Iokalarri erregularrena

Jokalaria	Puntuak	Jokalaria	Puntuak
1-Salaberria	98	11-Goikoeboea	13
2-Joseba Igartua	90	12-Caro	10
3-Loren	59	13-Azpiroz	7
4-Navarrete	54	14-Bravo	6
5-Leonardo	50	15-Jabi	5
6-Elkoro	45	16-Jagoba	3
7-Ugalde	44	17-Aristondo	2
8-Txasio	39	18-Zubiaurre	2
9-Gurrutxaga	27	19-Mujika	2
10-Guinea	23	20-Toni	2

## AGENDA

### Futbola, Mintxetan.

#### Zapatua, 2

16:30 Elgoibar "B" - Aurrera Ondarroa (1. erreg.)  
18:15 Elgoibar Soraluze (Jub.)

#### Domekia, 3

10:30 Elgoibar - Aloña-Mendi (Ini)  
12:00 Elgoibar Almen (Kad)

### ESKUBALOIA, Kiroldegian

#### Zapatua, 2

18:30 {IVIS Elg. - Elorrio (Senior nesk.)  
Domekia, 3

11:00 Pagoaga Elg. - Basauri (Kad. nesk.)  
12:30 Unceta Elg. - Basauri (Jub. nesk.)

### ESKU-I<sup>2</sup>LOTA, ikastolan

#### Domekia, 3

21:00 Lagunak (2) - Lrnieta

**11/**

## Langai

EuSkal Lan Zerbitzua

Aldi baterako lan kontratazio enpresa batek Eibarko lanpostu baterako elektrikaria behar du. Erref: 72796/3.

Durangoko enpresa baterako plantaka arduraduna behar da. Erref: 72863/1.

Durangaldeko enpresa baterako izotzgainen panelen muntatzailea behar da. Erref: 71661/6.

Durangaldeko enpresen baterako enkofratzailea behar da. Erref: 70655/4.

Aldi baterako lan kontratazio enpresa batek Urola Kostako lanpostu baterako ingeniari elektrikaria behar du. Erref: 70633/4.

o Donostialdeko enpresa baterako Lan Arriskuen Prebentzio Planetarako teknikaria behar du. Erref: 70459/4.

Aldi baterako lan kontratazio enpresa batek Durangaldeko lanpostu baterako ekipu informatikoen muntatzailea behar du. Erref: 68961/5.

Arabako lautaduko enpresa batek Zuazako irliko bornetegir baterako 2 sukaldari laguntzaile behar ditu. Erref: 71748/3.

Arabako lautadako enpresa batek Zuazako irliko barnetegir baterako 2 sukaldari behar ditu. Erref: 71745/3.

Bilbo inguruko enpresa baterako distribuziorako kanalen arduraduna behar da. Erref: 72113/3.

Danostialdeko enpresa baterako zuzendari orokorra behar da. Erref: 71938/3.

Debabarreneko enpresa baterako tailerreko arduraduna behar da. Erref: 72102/2.

Debabarreneko enpresa baterako Cam makinaren programatzailea behar da. Erref: 71146/2.

Aldi baterako lan kontratazio enpresa batek Debabarreneko lanpostu baterako metalgintzako FP 2 duen pertsona bat behar du. Erref: 70477/4.

Mallabiako enpresa baterako kontenedoreak erarnaten dituen kamioi gidaria behar du. Erref: 71616/3.

Aldi baterako lan kontratazio enpresa batek Debabarreneko lanpostu baterako harakintza behar du. Lehen mailako ofiziala izatea beharrezkoa da. Erref: 72562/1.

Hautagai moduan sartzeo eskatu nahi baduzu 901222901 telefonora deltu edo 'Langui' Elgoibarren dituen zenho logun. Izaila hauetako bolero Elgoibarko institutuz (Pejo Juoristi) 943 74 80 19 edo IMH INora Roman) 943 74 41 32 telefonora.

### ESKAERA

Emakumeak bere burua eskaintzen du arratsaldean, orduka, lan egiteko. 630 46 94 46. Eli.

Emakumeak bere burua eskaintzen du lanerako, 647 25 47 51. Mari Nieves.

Emakumeak bere burua eskaintzen du orduka, egunero izan gabe, garbiketa lanak egiteko. er 943 74 22 01.

urteko ernakume arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. tr 678 38 35 61. Carmen

Mutil bat eskaintzen da kamarolanerako. 117 943 74 37 94.

### ESKAINTZA

Kamareroa behar da astean zehar tabernan lan egiteko. tr 943 74 42 65

Kamareroa behar da. Neska zein mutila. te 615 55 99 21/ 943 12 16 73.

Esperientzia duen igeltseroa behar da Elgoibarko enpresen baterako. 45 urte ingurukoa. ie 943 74 05 26. Leire.

Kirnetz elkartearen gorbizteko pertsona bat behar da. tr 943 74 28 80.

Neska edo mutil euskalduna behar dugu harrera zerbitzuetan lan egiteko. 32 Posta Kutxatila

## Etxebizitzak

Bigarren eskuko etxea salgai Mendaron. 3 lagela, bainua eta jangela. logela ditu, balkoi ederra eta ganbarareki n. Mailo, t7z 943 03 35 19/ 669 95 60 65.

Pisua salgai Deban: 3 logela, jangela-egongela, sukaldea, kornuna eta ganbara. Dena oso berria. er 943 19 21 28.

Pisua hartu nahi nuke alokairuan Elgoibarren. Ahal bada, altzariek. tr 636 42 71 77.

Pisua behar dut cilokairuan Elgoibar, Mendaro edo Eibarren. Premiazkoa da. tr 636 42 71 77.

Eraikitzen ari den pisua salgai Mendaron. 104,40 m<sup>2</sup>. Hiru ganbara eta bi garaje ditu. m- 943 74 15 76/ 943 03 35 18.

## Lokalak

Taberna dokutzen da. Bezero ugari ditu. Prezio interesgarria. 943 74 03 92.

Lokala alakatzen dut San Roke kidean. Estudio, bulego edo trasterorako erabili daiteke. e: 655 73 89 56. (21:00etatik 22:30era bilartean deitu).

Cih-oen BX 14a salgai. SS-7804-U. Oso merkeez 943 74 19 30.

Bi izotzgain, sukaldea, kanpaia, baje garbigailua, tabernako kaletera eta izotza egiteko makina salgai. Industriadak dira eta oraindik berriak dira. z. 639 473 185.

Karreterako salgai. Giani TCRA. Prezio interesgarria. 20:00etatik aurrera deim. tr 943 74 17 52.

Renault GT Turbo autoa salgai. s' 686 197248.

Txakurrenizako "comanche" karroa Prezio onean. tr 610 29 18 17.

Ford Focus 1600 salgai. 100 zaldi. Zifar kolorea. 2 urte ditu. 20.000 km. Erabiltzen ez dudalako daukat salgai. s: 637 53 28 24. Amaia.

o Logela salgai. Oso merke. tr 600 235 509.

HP 3200 C eskanerra salgai. Egoera oso onean. Horrez gain, Lexmark Z 32 inprimagailua ere salduko nuke. (21:00 etatik aurrera). :w 600 79 14 40.

Gilera Runner 50 zk. ko motoa Garajeen egon da eta ondo zainduta dago. 30-05-00 motrikula. 1.000 euro, tr 943 74 20 04.

## OHARRA:

Merkatu ixikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazkena eguerdiko 13:30a da.

## Bestelakoak

Zilarrezko katea eta zintzilikarioa galdu ditut Kiroldegion. Alde batean Amaia dauka grabatua eta bestean, losu. v 943 74 13 41. Iosu.

Marka guztietako bizikletak konponatzen dira. Prezio onean. ts: 943 75 62 35/ 943 74 40 31.

13 hilabeteko txakurkumea oparitzen dui zaindu ezin dudalako. ta. 626 43 13 89.

o Emakumearen jertse beltz bat gaidu nuen Kiroldegian otsailaren lehen, barixakuan. Aurkitu duenak, eraman dezala Udaltzaingora.

Erretiratzeko dituzuen altzariak jasoko nituzke. Egoera onean badaude, hobe. 17 943 74 04 86.

Txakurkumeak oparitzen difid. Hita-befe eta erdi douzkate. -cs 630 93 10 93. Jabier.

## Partikularrak

DBHko ikasleentzat klase partikularrok ematen ditul. Esperientzia dauka ie 7 943 74 42 06.

Lehen hezkuntzako ikasgai guztietako klaseak ematen dira, (euskarara, ingurugi roa, mate...) tr 943 74 20 57. (21:00etatik aurrera)

Garajea salgai Arregitorre kalean. Bi autorentzai lekua du. Prezio interesgarriar 943 74 00 09.

Marradun garajea alokatzen da pista beltzean. Arratsaldean, 13:30etik 16:00ra 943 74 23 13.

Garajea itxia salgai leku Ederren. 20:00etatik aurrera. tr 943 74 08 38.

Garajea itxia salgai Olasoko Poligonoan. Martin. w 630 63 79 78.

## Agurrak

Zorionak Patxi!!! Marbearen Sean 14 urte beteko dituzulako, Lagunak. Ondo pasd





**Elgoibarko Gazte Informazio Gunea Kultur Etxean.**  
Bigarren solairuan. TeL 943 741 461 Orduetgia:  
Astelehena-asteartea- osteguna-ostirala: 17:00-20:00  
larunbata: 10:00-14:00



\*Zorionak Nerea Solozabali, marixoaren 2an 4 urte beteko dituelako. Musu handi bat familia osoaren partez. Baita tia Arantzari ere, bere iloben partez.



• Zorionak Iñigo Lopezi, crtsailaren 22an 10 urte bete zituelako. Anaia Xabierren, gurasoen eta la-mitiakoen partez,



\*Zorionak Aitor Gurrutxaga, bihar, larunbata, 4 urte beteko dituelako. Familiaren eta bereziki, Asierren partez.



• Zorionak Alazneri, hilaren 3an urteak beteko dituelako. Familiakoen partez.



Zorionak Mari Mondongu zure 4. urtebetetzean. Meditongo kaluen partez.



\*Zorionak Marina Ortuosleri, otsailaren 26an urteak bete zituelako. Lagunen partez. Aupa "poriera" eta segi horrela!




Zdrionak Natalia Soloza martxoaren 6an 10 urte beteko dituelako. Musu handi bat denon partez eta bereziki, Nerea eta Aitorren partez.



♦ Zorionak Haizea, marixoaren zton 6 urte beteko dituzulako. Gurasoen eta Iratiren partez.



\*Zorionak amama Maite, atza, hilak 28, urtiak bete zittualako. Familixakuen partez eta bereziki, Jkerren partez.



♦ Zorionak Oihana Rodriguez, atzo, otsailaren 28an, 10 urte bete zituelako. Etxeko eta bereziki, amaren partez.



♦ Aupa Cocol lau urtetxo! Zorionak gurasoen, alixitxa-amamen eta osabazibeben partez. Ondo pasal



\*Zorioncdc pototol Urte pillua egin dezu, ezta? Familiakoak



♦ Zorionak Jone, marbworen 3an 9 urte beteko dituzulako. Gurasoen eta Lauraren partez. Ondo pasa eguna!



Zorionak Beñat eia amatxo. Mila kilo zorion aita!xon partez.



#### BEKAK

Landa-garapena  
Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministeriook, landa-garapenerako agenzieen prestakuntzarako diru-laguntzak eskaintzen ditu unibertsitateko tituludunentzako. Epea: apirilak 1.

#### Iberiaren 100 beka

Urtebetez praktikak egiteko 100 beko Iberiaren eskutik. F'raktikak Madrilgo iberia zentroetan egingo dira. Aeronautikako Ingeniari-tza, informatikako Ingeniari-tza, Telekomunikazioetako Ingeniari-ka, Enpresa Zientzietako edota Enpresen Zuzendaritza eta Administrazio Zientzietako, Ekonomia Zientzietako Lizentziatura edo Matematikako Lizentziatura eskatzen da. Epea; martxoak 5.

#### JARDUERAK

##### Antzerkia

Eibarko XXV. Antzerki-jardunaldien barnean, besteak beste, ondoko antzerkiak ikusteko aukera izango da: "Fael6n", Alacr6n Teatro, martxoaren 1 ean; "C6mo lo veis", Gert Pedersen, martxoaren 2an; "ComicOlogos" Divertia Productions, martxoaren 2an, e.a. Azken antzerkia martxoaren 19an izango da.

#### HITZALDIA

Gaztegunek Boluntario-elkarteen finantziarioi buruzko hitzaldia antalatu du marixoaren 5erako, CRAJeko gela baliogan iztunean.

#### BIDEFORUMA

Gipuzkooko EHGAM taldeak "High Art" filma eskainiko du Donostiako Ernest Lluch Kultura Etxean, martxoaren leian.

#### NAZIOARTEKO BEGIRALE-PROGRAMA ESTATU BATUETAN

Lan egiten duten bitartean ingelesa landu nahi duten gazteentzako programa da. 20-27 urte bitarteko adina, ingeleseko erdika maila eta kiroletako edo gizarte eta kulturako zein kanpamentuko ekin-tzetan esperientzia izatea eskatzen da. Epea: apirilak 6

#### IKASTAFIOAK

##### Gidari profesionalen ikastaroa

Errepide bidezko Garraioa Enpresaren Nafarroako Elkarteak (ANET) antolatuta, gidari profesionalen dooko ikastaroa, Sustapen Ministerioak diruz lagunduta. Ondoren, lan-poltsa osatuko da. Kamioi-artikulatuak edota autobusen gidabaimena izatea eskatzen da. Epea: martxoak 8.

#### LANA

##### Giza baliabide eta enpresaren antolamendua

Elgoibarko Ildalak, lehiakettroposizio bidez, giza baliabide eta enpresaren antolamendu arloan adituak koniratzeko lan poltsa deialdia egin du. Besteak beste, Zuzenbidean, Ekonomian edo Enpresa Zientzietan lizenziatua imtea eta antzeko ezaugarriak dituen posluan urtebeteko esperientzia izatea eskatzen da. Epea: martxoak 22.

##### Kontu-lartzaitzako Teknikaria

Arexaboletako Udalaren eskutik, plazaren titularrak amatasun-baja eta oporraldia amaitu arte, Kontu-lartzaitzako Teknikari lanposiu bat betetzeko oposizio-lehiaketa. Ekonomia Zientzietako edo Enpresa Zientzietako diplomatu titulua izatea edo lortzeko eskubi-deak ordainduta izatea eskatzen da. Epea: martxoak 5.

##### Euskara Teknikaria

Leitzako Mankomunitatean Euskara Teknikari bat kontratatzeko oposizio-lehiaketa. B maila. Probak apirilaren 9an egingo dira. Epea: martxoak 27.

##### Jakinarazlea

Bergarako Udalean Administrazio Orokorreko jakinarazle (notificador) lanpostua beteizeko oposizio-lehiaketaren deialdia. Epea: martxoak 4.

## 1 BARIXAKUA

17:30 URTEKO BATZAR OROKORRA  
Jubilatuen Biltokian

19:30 KONTZERTUA  
"Quinteto de viento Pablo Sorozabal"  
Musika Eskolako Auditorioan

20:00 GAZTETXETIK  
SAGARDOTEGIRA IRTEERA  
Irteera: Maalatik  
Antolatzailea: Gazte Asanblada

22:15 ANTZERKIA  
Ikuskizuna: "A tientas, de novio atento a  
marido violento"  
Taldea: Abrir Antzerki Taldea  
Herriko Antzokian

## 2 ZAPATUA

16:30 ELGOIBARKO I. AURRESKU  
ETA SOINU TXAPELKETA  
Herriko Antzokian  
Antolatzailea Inazio Bereziartua M.E.

## 3 DOMEKIA

10:30 ELGOIBARKO I. AURRESKU  
ETA SOINU TXAPELKETA  
Herriko Antzokian  
Antolatzailea: Inazio Bereziartua M.E.

11:30 GURASOENTZAT TOPAKETAK  
"Gurasoak eta seme-alaben heziketa  
integrala"  
Parrokian  
Hizlaria: M. Pilar Irastorza eta J.M. Aldasoro

## 5 MARTITZENA

21:30 HITZALDIA  
Gaia: Emakumea eta sexualitatea  
(gazteleraz)  
Hizlaria: Cristina Corbella  
Kultur Etxeko hitzaldi gelan  
Antolatzailea: Haizea Emakume Taldea

## 6 EGUAZTENA

19:30 HITZALDIA  
Gaia: Konponbide demokratikoaren  
proposamena  
Kultur Etxean  
Antolatzailea: Batasuna

## 19:30 SIULA GRANDE-YURAQ JANKA (CORDILLERA BLANCA)

IKUSENTZUNEZKOA  
Herriko Antzokian  
Antolatzailea: Morkaiko Mendizale Elkarteak

20:00 HITZALDIA  
"Hegoaldeko ahotsak"  
Elizako lokal berrietan

Antolatzailea: Parrokiako Misio Taldea  
20:00 BOLSOY MOSKU BALLETA  
Herriko Antzokian

## 7 EGUENA

18:30 JARDUNALDI PEDAGOGIKOAK  
Kultur Etxean  
Hizlaria: Iñaki Toledo psikologoa  
Antolatzailea: Herri Eskolako Kalamua  
Gurasoen Elkarteak.

19:00 "ELGOIBAR-  
CONTEMPORARYART-ELGOIBAR"  
ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA  
Kultur Etxeko erakusketa gelan  
Antolatzailea: Haizea Emakume Taldea

## HITZALDIAK

**Jardunaldi Pedagogikoak**  
Herri Eskolako Kalamua Gurasoen  
Elkarteak Jardunaldi Pedagogikoak  
antolatu ditu aurten ere. Bigarren  
hitzaldia martxoaren 7an, eguenean,  
izango da Kultur Etxean 18:30ean.  
Iñaki Toledo psikologoa "Eskolak  
etxean egiteko bidaltzen dituen  
Ianen ardura. Seme-alabena?,  
gurasoena?..." hitzaldia emango du.  
Hitzaldi honek mahai-inguru  
formatoa izango du. Bertan,  
hizlariez gain irakasle batek eta  
guraso batek hartuko dute parte.

## IRTEERAK

**Eski irteera Andorrara**  
Morkaiko Mendizale Elkarteak  
Andorrara eski irteera antolatu du.  
Irteera martxoaren 15ean, 18:00etan  
izango da Plaza Handitik. Itzulera,  
berriz, martxoaren 19an, iluntzean.  
Prezioa: 150 euro bazkideek; 155  
euro bazkide ez direnek. Prezioaren  
barne autobusa, 3 gau pentsio  
erdian, gau bat gehiago eta 3  
egunetako forfait-a daude. Izena  
emateko azken eguna martxoaren  
7a, osteguna da.  
Telefonoa: 943 74 02 97.  
[e-mail: morkaiko@hotmail.com](mailto:morkaiko@hotmail.com).

ZINE  
kluba



## "Tuvalu"

Zuzendaria: Veit Helmes  
Antzezleak: Denis Lvant, Chulpan Hamatova eta Terrence Gillespie.

Film alemaniar hau ipuin moderno bat da, komedia puntnekin. Txuri beltzean filmatu zen lehendabizi eta gero eman zioten kolorea. Elkarrizketarik gabeko film mutua da. Protagonistek beraien mundu partikularra kontatuko digute. batzuetan kokatzen da historia: Anton, pertsona bakartia da. Aira itsuaren ilusioa mantendu nahi du zutik, hau da, igerilekua martxan eta jendez beteta mantentzea, baina bere arreba Gregorrek botatzea nahi du.



## KATEKESIA

### Gurasoentzat Topaketak Parrokian

Donostiako Pio XII Erlijio Zientzietako Institutoaren laguntzaz, bi ekitaldi prestatu ditu San Bartolome Parrokiak Katekesiko eta Astialdeko haurren gurasoentzat, datozen martxoko bi lehen igandeetarako, 11:30etako mezaren barruan. Lehen topaketa martxoaren 3an izango da. Maria Pilar Irastorza eta Jose Maria Aldasoro senar-emazteak izango dira hizlariak eta "Gurasoak eta seme-alaben heziketa integrala" izango da eztabaidatuko duten gaia. Martxoaren 10ean, berriz, "Nola transmititu fede gaur egun" izango da gaia eta Kristina Aizpurua katekista eta gurasoa eta Miren Perez, gazteen monitorea eta Karitaseko lankidea, izango dira hizlariak.

## OSPAKRUNAK

### Barrikotea Kimetz Elkartearen

Urtero moduan, Kimetz Elkartek Barrikotea antolatu du aurten ere sagardotegi denboraldia aprobetxatuz. Martxoaren 9an, zapatuan, izango da afaria 21:00etan. Nahi duten guztiak joan daitezke alde aurretik tiketak ohiko lekuetan erosi ondoren: Jai-Alai, Txuri-Beltz eta Orbea. Menua honakoa izango da: Bakailu tortila, txuleta erreka eta gazta, menbrilloa eta intxaurreak. Prezioa 15 euro. Bezperara arte eman ahal izango da izena. Gehienez 90 pertsonarentzat lekua dago.

## BALLETA

### Bolsoy Kiev Ballet Nazionala

Bolsoy Kiev Mosku Ballet Nazionalak "La magia de la danza" ikuskizuna eskainiko du martxoaren 6an, eguaztenean, 22:00etan Herriko Antzokian. Ballet profesional honek hainbat nazioarteko sari irabazi ditu eta Errusiako instituziorik garrantzitsuenetakoa da dantza klasikoaren arloan. Anna Schrrleva lehen dantzariak, adibidez, Moskuko Nazioarteko Dantza Txapelketan urrezko domina irabazi zuen. Beraz, gure artean ezhoikoa den arte mota honetaz gozatzeko aukera paregabea izango da eta maisuen eskutik, gainera.

## ERAKUSKETAK

**Emakumeak-Contemporary Art-Elgoibar**  
Haizea Emakume Taldeak Emakumeak-Contemporary Art-Elgoibar izeneko erakusketa antolatu du Elgoibarko Iau artisten lanekin. Ainara Etxeberria, Jasone Osoro, Ainara Garcia eta Alazne Gonzalez dira artistak. Erakusketaren helburua Elgoibarko esparru desberdinetako emakumeen sormen lanak ikusgai jartzea da. Kultur Etxeko erakusketa gelan artea eta kultura, ileapaindegia, hosteleritza, musika, moda eta eszenografiarekin zerikusia duten lanak ikusi ahal izango dira martxoaren 7tik 17ra bitartean. Inaugurazio saioan (martxoak 7, 19:00etatik aurrera) musika, pintxoak, pastelak, bideo proiektzioak, koreografia eta eszenifikazioak izango dira.

## KARTELDEGIA

### ELGOIBAR

Herriko Antzokian  
**"Amor elego"**  
2, zapatua: 19:00-22:15  
3, domekia: 19:00-22:15  
4, astelehena: 22:15  
**"Kiriku eta sorgina"**  
3, domekia: 16:30  
**"Tuvalu"**  
(zine kluba)  
5, asteartea: 21:30  
7, eguena: 22:15,

### EIBAR, Unzaga

"Corazones en Atiantid

.15

2. zapatua: 17:00-19:45-22:30  
3, donnekia: 17:00-19:45-22:30  
4. astelehena: 19:30-22:15  
5, martitzena: 19:30-22:15  
eguaztena: 19:30-22:15

**'ia o: 11**

**"Black Hawk..derribad**

1. barixakua: 19:30-22:15  
2, zapatua: 19:30-22:15  
3, domekia: 19:30-22:15  
•astelehena: 19:30-22:15

22:1

### BERGARA, Novedades

"A mi madre, austarvla. Anujer

1, zapatua: 19:30-22:30  
3, domekia: 19:30-22:15  
4, astelehena: 17:00

"La Zona Gris"

28. Eguena: 20:00 (Zine Kluba)

BARRIEN ez da gerta litezkeen erakusketen arteko erakusketak.



## "Amor Ciego"

Zuzendaria: Bobby eta Peter farrelly.

Antzezleak: Gwyneth Paltrow, Jack Black, Jason Alexander.

Mauricio eta Hal koefiziente mentala zenbaki gorritan duten bi adiskide dira. Tabernaz taberna pasatzen dute beraien bizitza tristea zerbeza bat bestearen ondoren edanez eta sekula santan neskaten batekin ligatu gabe. Egun batez, Hal-ek Rosemary ezagutuko du eta berataz maiteminduko da. Rosemary neska oso jatorra da, baina kilo gehiegitxo ditu soberan. Hal txora-txora eginda dago eta ez du errealitatea den modukoa ikusten.

ZINEA

## Arlarm kulada eskuitorea

# "kondiak eskultura eitzeko enkargua eman dit"

*Makinak zenbat eta zehaztasun handiagoarekin lan egin hobea dela esan ohi da, eta Kondian horretan salatzen dira piezak arteianak balira bezala ahaik eta egokien egiten. Baina beste artelan bati buruz arituko gara gaur. Arturo Andrade eskulturgile elgoibarfarak Kondia enpresaren 50. Urteurrena aitzakitzat hartuta egin duen eskulturari buruz hain zuzen ere*



*Ezkerretik eskumara, Jose Mari Riaño  
Arturo Andrade eta Joseba Konde.*

**Zein dira orain arte egin dituzun lanik esanguratsuenak?**

Garrantzitsuenak A Coruñan ipini ditxuen harri eta brontzeko hiru eskultura haundi dia. Beste lan publiko batzuk ere ein ditxut. Igual, tamaino eta izenagatzik dia esanguratsuak.

**Orain Kondiaren enkarguz egin duzu eskultura, ezta?**

Eskulturak enkarguz eitzen nitxuala jakinda, enpresatik lan berezi hau proposau zien. Industrian mundua ezautzen dot eta hortan oinarritxuta ein dot lana.

**Kondiak zergatik aukeratu du Arturo Andrade?**

Kondiak 50. urteurrena zelebratzeko erregalo sorta berezi bat preparau dau: Elgoibarko Bandler diskua, euskarazko hiztegixa, eta azkenik, eskultura. Eskultura elgoibartar batek eindakua izan bihar zala iruditxu jakun. Arturo Andraderi ein ginon eskarixa eta oso gustura geratu gera bere lanakin.

**Zein materiale erabili dituzu?**

Tamaina honetako lanetarako gehixenetan erabiltzen doten materiala brontzia da. Leundutako brontzian eta brontze zaharran arteko kontrastiak joku ematen dau. Gainera, makinian formak eitzeko ere materialik egokixena da. Brontzia iraunkorra da, itsasora botata ere

1000 urten ostian hasieran bezela egon leike.

**Zein neurritako eskultura da?**

Txikixa 15x10x10 zm. inguru eukiko ditxu. Pieza txikixak egokixauak dia lanerako. Haundixek desbordau ein zaitzakete. A Coruñako Iana 2 metrokua da eta begiratzen diotienian gauza batzuk alde ein diatela iruditzen jata, ez da lan txiki bat bezain errez dominatzen, eta difuminau ein leike.



**Denbora luzez jardun al zara lanean?**

Inportantiena diseinua da, jendiari gustauko jakon lan bat eitzia da helburua. 20 egun inguru eman nitxuan hasierako hiru maketak preparatzen. Makina fresadorian idea gehixen reflejatzen zaban irudixa aukeratu genduan. Gero, produktzivan urte erdi inguru eman dot. Silikonazko moldia ein genduan ahalik eta

preziosorik haundixena lortzeko, gero burdina moldeatu eta azkenik, banan-banan eskuz errematau. Azken atal honek enkanto berezixa ematen die piezeri, artistian ikutu pertsonala ematen diotelako.

**Zer irudikatzen du eskulturak?**

Hemengo makina fresadora baten argazkixa eman zien eta hortan oinarritxu naiz eskultura eitzeko. Lanak fresadora baten lanian ari dan langile bat erakusten dau.

Oin kontrol numerikodun mekanizazio zentruak dia gure produkto printzipala. Oindiokan fresadorak eitzen dian arren, mekanizazio zentruak dia nagusi, kontrol numerikuak makina konbentzionalen lekua hartu dau-eta.

**Zer suposatu du zuretzat lan hau egiteak?**

Elgoibarrera etorri nintzian Arriola enpresako bankadek atentziva eman zien, eta poliestilenoazko pieza batzuk ein nitxuan hortan oinarrituta eta orduan sartu nintzan industrian munduan. Kondian eskari honek mundu horretan gehixao sartuarazi nau eta beste lan batzuk eitzeko baliagarri izan leike Makina Erremintaren arlotik ikasitxakua. Enkarguek alde artistikotik begirata badakate zeresanik, beti ikasten da zeozer alor diferente bakoitzetik.



# 50 años

# rejuvena

**Indid**  
1952 2002

**MK-1**  
1951

**MK-A**  
1959

**FV-1**  
1964

1968

**FV-1 GNC**  
1975

**FK-76**  
1976

**KM-3P**  
1979

**FV-300**  
1983

**B-1000**  
1982

19139

**K-600**  
1987

**CM-1500**  
1991

**CM-2200**  
1994

**CM-60**  
1992

**URBAN 1650**  
1993

**HM-1060**  
1994

**B-1050**  
1996

**URBAN 2500**  
1999

**HM-2010**  
1999

**B-640**  
1998

**ZM-99**  
1999

**HS-1000**  
1996

**HM-3015**  
2001

**B-1370**  
2001

**SEASKA**  
2001

**P60-V2**  
2002



# Anch(15 egul

Anchustegut

Sanyfer

BAINURAKO ALTZARIAK

KOMUN-ONTZIAK

KANILAK

BAINURAKO OSAGARRIAK

ETXERAKO BURDINDEGIA

INDUSTRIARAKO HORNIKUNTZAK

BURDINDEGI PROFESIONALA

ETXERAKO TRESNAK



## AnchCistegui

Olaso Industrialdea  
Olasope. 5  
83 Posta kutxatila  
20870 ELGOIBAR

ERAKUSKETA eta EIULEGOAK  
Tel.: 943 74 33 44 - 943 74 08 92  
Faxa: 943 74 37 11

ALMAZENA  
Tel.: 943 74 20 3B - 943 74 23 71  
[sanyfer,VJanchustegul..com](http://sanyfer,VJanchustegul..com)